

GARBIÑE MENDIZABAL

“Zinez esaten dautsuet, ez dago mundu honetan euskaldunok ederkien batu gaituenik ezer, euskerak baino hobeki. Euskadi bizitzeko, Euskal Herria izan behar!”

Jose Antonio Agirre lehendakaria, 1956

Udak, urtean zeharreko abailak gelditu eta eginbeharrak utzita, bestelako idazkiak irakurtzeko egokiera ematen du. Eskura etorri zait liburu txiki bat, idazle portugaldar batena: “Pequeña teología de la lentitud”, José Tolentino Mendonça Vatikanon, Kultura Kontseilu Pontifizioko aholkulariaren lana. Hainbatetan hizpide izaten ditugun gaien inguruko hausnarketa esanguratsuak aurkitu ditut.

Kapituluen artetik, “*El arte de la perseverancia*” izenekoak eman dit artikulu hau has-teko haria. Tolentinok dioenez, pertseberantzia edo iraunkortasunaren artea, urtetan, itxaropenerako laborategia izan da, hau da, helburu espiritual edo material bat finkatu, martxan jartzeko ahaleginak egin eta helburu hori lortu arteko onik ez izatera daraman giroa, alegia, lanari ekitera eta etsi gabe lan egitea garmatzen kultura. Horretan irautea eta amore ez ematea da pertseberatzea, zeren bila gabiltzan jakinik. Orainaldiak etorkizunarekin aliantza bat duela sinestea da, hazia lurrean ereiten duzunean bezala, badakizulako etorkizunean landarea sortuko dela. Horixe bururatu zitzaidan ekainean Sabino Arana Fundazioaren euskarari buruzko ekitaldian ikusi nuena ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako

EUSKARAREN ERABILERA: HERRI POLITIKA

eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politikako arduradun nagusiak batu zirenean, lehenengo aldiz, etorkizunean gara litezkeen lan-ildoei buruzko iritziak elkar trukatzeko, konbikzioak sendotzeko, horien gaineko hausnarketa egin eta ikasteko, bide berriak urratzeko.

Gure aurrekoek ereindako hazia fruitua ematen ari da. Izan ere, esaten dugunean ez dela aski euskara jakitea, baizik eta hizkuntza erabiltzean dagoela koska, esan gabe doa, Legebiltzarrean eta gizartean euskarazko hezkuntza lehenesteko erabaki politikoa, behar-beharrezkoa izan zela eta bete-betean asmatu zutela 80ko hamarkadako arduradunek euskara lehen mailako hizkuntza izateko bidea jarri zutenean hezkuntza guztian. Gurasoek sendo heldu zieten seme-alabak euskaraz hezteko erduei. Herri erabaki goren horietako bat da, erabaki politiko handietako bat, euskal industria berritzeko eta nazioartekotzeko politiken mailakoa edo gizarte bidezkoagoa eraikitzeko pobrezia eta bazterkeriaren aurkako politiken neurrikoa, orain 40 urte Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak euskara berreskuratu eta biziberritzeko politikari ekitea, eskolatik hasita.

Euskadiren zigilu politikoak dira, gure nazioa barrutik eraikitzen dutenak eta munduan zein garen erakusten dutenak: euskara-kulturako politikak, ekonomia-finantzakoak eta gizarte-zuzentasun politikak. Gorabeheratsua baina, nagusiki, adostasun handiz hartuak. Euskarari dagokionez, bide luzea egin dugulako gaude orain beste koska bat igo beharrean: erabilera-rena. 25 urte hauetan, ia 223.000 hiztun irabazi ditu euskarak eta, gazteenetan, ia 10etik 6k badakite euskaraz. Beraz, bada, gauza bat izan dezagun argi, ematen baitu, batzuetan, alde ilunek itzali bezala egiten dutela argia: ez ginateke euskararen erabilera-aren erronka aipatzen eta erantzun bila egongo, euskarazko eskolaren aldeko politika erabaki izan ez bagenu orain dela lau hamarkada. Eta ordu hartan, euskara berpizteko politika bezalaxe, lehen mailako herri-politika izango dugu hemen-dik aurrera euskararen erabilera bultzatzea, erakundeak eta gizartea elkar hartuta.

Euskararen ezagutza gazteen artean ari da handitzen, batez ere. 16-24 adin tartea kontuan hartuta, esate baterako, %22,5 ziren euskaldunak 1991n; orain, aldiz, %55,4. Orain dela 25 urte adin-talderik euskaldunena zena, 65 urtetik gorakoena (%28,5), hain zuzen, euskararen ezagutza apalena duena da gaur egun.

Nabarmena da baita ere erabaki politikoak hartu diren euskal esparruetan askoz ere aurrerago joan dela hizkuntza eta, alde horretatik, itxaropenez betetako garaiak bizi ditugu Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Ipar Euskal Herriko Elkargoaren arteko elkarlana medio. Elkarlan hori adostu beharko dugu, adosten ari dira, jada, zertan eta nola. Poztekoa da erronka horri heltzeko Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak elkartu izana Sabino Arana Fundazioaren ekimenez euskararen inguruko hizkuntza politikaz jarduteko. Bertaratu ginenon arteko giroan sumatzen zen berritasunaren harridura eta halako poza: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa elkarturik, zeren inguruan-eta euskararen inguruan. Pentsatzen jarritz gero, harritzekoa alderantzikoa da: nola zitekeen orain arte elkarlan eta elkartasun hori etenda egon izana. Bada garaia bideari ekiteko, beldurrik gabe, ziur eta itxaropenez. Euskal Herria garelako eta Euskal Herrian euskararekin gure nazioa eraikitzen dugulako, abertzaleok, Euskadi deitzen duguna. Izan ere, euskara, gure herriko berezko hizkuntza,

jatorrizkoa denez, bat egin behar dute bere alde gure herriko erakundeek, alderdiek eta gizarte elkarteek: guk guztiok. Herri hone-takoek arretarik jartzen ez badiogu kanpoko inork jarriko ez diolako. Gure erantzukizuna da, beraz.

Jakina! Euskarari lotutako politikak behar duena sinesgarritasuna da, alegia, jendeari esaten zaiona alderdi politikoek eta herri-erakundeek bete eta egitea. Koherentziari eutsi behar zaio. Esate baterako, Legebiltzarrean, legebiltzarkideen %70 gara euskaldunak. Hori seinale bat da, gizarteari nondik nora goazen erakusten diona, ez gizartearen atzetik baizik eta gidari, eta herriarekin bat eginda, jendea-ekin batera. Eta erakutsi beharra daukagu euskaldunak garela, eta euskara hitz egiteko dela, ez kurrikuluma osatzeko, herri-ordezka-riak garelako.

Esanguratsua da alderdi abertzaleen argazki linguistikoa Eusko Legebiltzarrean: EAJko eta EHBilduko 46 ordezkarietatik 40 euskaldunak gara, alegia, %87, eta gainerakoek maila ertaina dute eta ikasten ari dira. Garrantzitsua da euskara guztiona dela adieraztea, abertzale izan ala ez. Nahiz eta abertzaleok izan garen euskararen aldeko poli-tiken aitzindari eta eragile ezinbesteko, hori errealitatea da. Euzko Alderdi Jeltzalearen eta abertzaleen DNA politikoa dago euskara bizi-berritzea eta indartzea, Euskadi eta euskaldun, euskarak egiten gaituelako.

Iruditzen zait deskuidatuta dabilzala euskararen garrantzia aintzat hartzen ez duten alderdiak: atzera geratuko dira, dagoeneko ari dira geratzen, ez Legebiltzarrean bakarrik, Euskadiko gizartean baizik. Eta deskuidatuta egongo gara, aldi berean, euskara alder-dien arteko borrokarako eta erasorako arma gisa erabiltzen badugu. Euskara politikatik atera baino, ezinbestekoa da euskara borroka politikotik kanpo uztea, eta oinarri politikoa ezartzea euskara indartzeko.

Euskaraz eta gazte jendeaz, pare bat hitz. Esan bezala, 16-24 adin tartea kontuan hartuta, %22,5 ziren euskaldunak 1991n; gaur egun, %55,4. Euskara ikasteko ahalegin handi horren ondoren, euskaraz aritzeko bideak zabaldu behar ditugu. Oso egokia iruditzen zait erdal giroko gazteek euskaraz bizi diren inguruetan kanpaldiak eta egonaldiak egi-teko esperientzia hori. Horrela, eskolatik kanpo

euskaraz bizitzeko erarik ez daukaten neska-mutilek ikusiko dutelako beren kidekoek euskaraz barra-barra egiten dutela, natural, alegia, euskara gazteen hizkuntza dela. Bestetik, euskara gozatzeko bidea ematen du ekimen horrek, eskolako derrigortasun kutsua kentzen diolako. Eta, gainera, euskarak balio duela ohartzen lagunduko die mutilei eta neskei, beren mundura arazorik gabe moldatzeko gauza den hizkuntza dela. Eta, azkenik, herri honetan euskara ez dela hizkuntza arrotza, alderantziz baizik, eta ondorioz, eurak ere, euskaldun egiten dituela euskarak, herri honetako gazteak. Horiek horrela, beharbada pentsatu beharrekoa izango da nola zabal daitekeen gazteak gune euskaldunetan elkartzea, bizi-pena ona dela erabakiz gero.

Bestetik, pentsatzen dut euskararen jabe izateak eta euskara sentitzeak, jeneralean herri bat sentitzera daramala pertsona, edo eraman dezakeela herri-sena izatera. Beti izan da garrantzitsua pertsonak zein den, nor den jakitea. Bada, egokitu zaigun bizi-aldian honetan ere funtsezkoa iruditzen zait, eta indar hartuko duela identitate kolektiboak nortasun indibiduala eraikitzeke. Alegia, globalizazioaren garai honetan eta aniztasuna gizarte modernoaren ezaugarria izanik, garrantzitsua da pertsonak nor den jakitea, beste pertsona batzuekin elkarte bat osatzen duela eta bere bizitza herri batean errotu dela. Pertsona bat munduan barrena abiatu eta berehala, galdetzen dioten aurreneko gauzetako bat dugu nondarra den. Eta nik beti esan dut euskalduna naizela, "basque". Munduan ibili bai, etxea non daukazu jakinda. Ez da gozoa etxerik eta aberrik gabe ibiltzea. Galdetu besterik ez dago sufrikario hori jasaten dutenei. Beraz, euskara gazteentzat, eta helduentzat, munduan ibiltzeko GPS bat da, munduan kokatzen gaitu, badugu gure begiak nora zuzendu: euskararen herrira, gure errora.

Hizkuntzari indar berria emateko une honetan, sentimenduaren esparrua jorratzea iruditzen zait landu beharreko beste alderdi bat, emozioarena. Harrapatu egin behar gaitu gure hizkuntzak. Batez ere, gazteak harrapatu behar ditu euskarak. Erabilerari buruzko arrazoi objektiboak aztertu eta ikertu diren bezala, arrazoi subjektiboak ez ditugu aztertu, ikertu, xehatu; hain zuzen, horretan egongo da, seguru-erik, irtenbidearen gakoetako bat. Emozioa lotu euskararekin. Eta, aldi berean, konbikzioa.

Hau da, pertsona baten nortasuna eraikitzeke inportanteak dira uste sendoak, konbikzioak; emozioak sustraitu eta indartzeko, sentimenduak hegan joan ez daitezkeen beste norabait, konbikzioetan errotu beharra dago emozioa, istant bateko zirrara axalekoa izan ez dadin, gertaera bateko berotasuna hoztu ez dadin, sentimendua itzal ez dadin. Sentimenduak konbikzioetan bilduta, pertsonaren identitatea egituratzen dute eta herriena ere bai, konbikzioak lantzean. Hau ez da futbol talde baten emozioaren parekoa, askoz maila sakon eta garaia du. Bizitzari arrazoi bat eman behar zaio, kausa bat, bide batetik edo bestetik eraman behar da; eta hori egin dezake herriaren aldeko atxikipean, gure hizkuntza maitatzeak, euskaldunon eskubideak. Herri sena, euskal sena. Hori guztia behar dugu euskara biziberritzeko.

Ez gaitzen lotsatu euskaraz egiteaz. Euskaldunak euskaraz, beldurrik gabe. Uste baino gehiago gara. Hala gertatzen zait niri, adibidez, Bilbon eta Donostian. Makina bat aldiz norbaitek zerbait galdetu kalean, gaztelaniaz, eta euskaraz erantzunda, euskalduna izan! Beraz, ezezagunari aurreneko hitza euskaraz. Begiratua bera ere, euskaraz. Hainbestetan aipatzen da ikusgarritasuna gaur egun. Hartara, euskara nabarmendu behar dugu, euskaraz ikusi, entzun, sentitu... batzuk eta besteak. Euskara ez da eta poltsikoan eramateko. Ahoz aho erabiltzeko da. Eta horretarako, garrantzitsuak dira euskara plazaratzen duten erreferenteak: zientzialariak, artistak, idazle eta pentsalariak, politikoak eta akademikoak, erlijio eta filosofia arlokoak... Puntako jendea euskaraz. Denok ikus dezagun, bereziki belaunaldi berriek, txapeladunen hizkuntza dela euskara, edozein txapelketatarako balio duela.

Beraz, iraunkortasunaren artea behar dugu euskararen erabilerari bultzada berria emateko, barruko eta kanpoko zailtasunei helduz aurrera egiteko kemena. Helburuak ondo finkatuz, elkarrekin partekatuz, indarrak onerako jarritz; jakinda munduko hizkuntzarik zaharrenetakoa hitz egiteko eta bizitzeko aukera aparta daukagula. Beste inori utzi ezin diogun erantzukizuna dugu, natura bezala, orain dela milaka urte lehen euskaldun haiek sortu zuten hizkuntza zaintzeko, berritzeko eta ondorengoei helarazteko.